

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Nati Gabilondo Garitano

*Bergara,
Gipuzkoa
(1934)*

Aurkibidea



Biografia



San Blas (Buruñao) auzoko Ziarreta baserrian jaio zen, bost anai-arrebatatik zaharrena. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, San Martzial (Goiauzoa) auzoko Lapatza baserritik etorritakoa. Pilotaleku ondoko eskolan eta San Juan ermitakoan ikasi zuen zazpi urtetik hamabira arte. Bizi guztia eman du baserrian. Aldaiegia auzoko Gaztelugoikoa baserrira ezkondu zen, bertako Pedro Inzarekin. Hiru seme-alaba izan zituzten. Baserrietan egiten ziren lan asko zehazki azaltzen ditu, eta baita etxeko lanetako batzuk ere, hala nola lixiba egitearena.

Zintak

BER-074

- **Proiektua:** Linua, ehuna eta artilea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Data:** 1994-06-05
- **Iraupena:** 49 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Bergarako Udala

BER-283

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-12-14
- **Iraupena:** 73 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

BER-284

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-12-14
- **Iraupena:** 22 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. San Juango eskola; elurra zenean, lapikoa etxetik

- **Erref:** BER-283/008
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:07:45. **Bukatu:** 00:09:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolara joaten zirenean, etxera etortzen ziren bazkaltzera normalean. San Juango eskolan zebiltzanean, elurra egiten bazuen, etxetik eramaten zuten lapikoa eta bertan jaten zuten. Inguruetako umeak batzen ziren, adin desberdinetakoak; 30 inguru ibiliko ziren elkarrekin.

2. Olatzagutiko artzaina negua pasatzen Ziarretan

- **Erref:** BER-283/013
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:13:32. **Bukatu:** 00:15:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Ardientzat orbela ekartzen zuten. Neguan Olatzagutiko artzain bat etortzen zen bere bi semeekin eta euren geratzen ziren lotan bi hilabete inguruan. Ehun arditik gorako artaldeak zuten. Oinez etortzen ziren Olatzagutitik, Brinkolan geldialdia eginda. Haiek etortzeari utzi ziotenean, euren Ziordiako iloba bat etorri zen urte askoan.

3. Olatzagutiko artzaina urtariletik martxora Bergaran

- **Erref:** BER-283/018
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:17:40. **Bukatu:** 00:19:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Olatzagutitik artzain bat etortzen zen euren etxera, negu partean. Urtarrilean etortzen ziren; Ondartza baserrian egoten ziren lehenengo eta San Blasetarako Ziarretara joaten ziren. Etxean ez zuten asko laguntzen, euren lana izaten zutelako ardiak zaintzen. Gaztak ere bertan egiten zituzten. Martxora arte egoten ziren. Ardiak egunez kanpoan ibiltzen ziren eta gauean pentsua ematen zitzaientzen, barrura sartutakoan. Ardi askak.

4. Nafarroatik etortzen ziren artzainekin harremana

- **Erref:** BER-283/019
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:19:57. **Bukatu:** 00:21:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Bere gurasoen sasoian ere etortzen omen ziren kanpoko artzainak negua pasatzera. Ez daki zer eratako tratua egiten zen artzainekin. Eguneko gastua ordaindu egiten zuten. Adibidez, gogoan du babarruna edo ogia erosi egiten zizkietela eta baita esnea ere, harik eta ardi-esnea hasi arte. Beraiek gatzatua eta gazta izaten zituzten trukean.

5. Gaztak eta ardi-esnea kalean saltzen zituzten

- **Erref:** BER-283/020
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:21:22. **Bukatu:** 00:23:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Nafarroatik etortzen ziren artzainak behorrarekin kalerik kale ibiltzen ziren gaztak saltzen. Ardi-esnea beraiek saltzen zieten behi-esnearekin batera, baina jendeak ez omen zuen gatzatua jateko ohiturarik. Natik gogoan du bezero bati ardi-esnea eramaten ziola plazara eta ordainetan arroparen bat egiteko oihala ematen ziola. Bildotsak etxean hiltzen zirenez, gatzagia etxean lehortzen zen.

6. Txerria hildakoan, odolosteak egiten zituzten

- **Erref:** BER-283/022
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:24:28. **Bukatu:** 00:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Etxean txerria hiltzen zeneko kontuak. Auzoko gizon edadetu bat ibiltzen zen txerriak hiltzen baserrietan. Aurreko egunean tipula mordoa erretzen zuten, odolosteak egiteko. Zer osagai sartzen zieten.</p>

7. Txerria hildakoan, auzokoentzat pusketa onenak

- **Erref:** BER-283/024
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:27:53. **Bukatu:** 00:29:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Txerria hiltzen zenean, auzokoei "erregaloa" emateko ohitura zegoen sasoi

batean: odolosteak eta solomo, saihets eta urdai pusketa bana. Gero, auzokoek ordaina ekartzen zuten, beraiek txerria hildakoan. Pusketa onenak hantxe joaten omen ziren. Ohitura hori galduz joan zen.

8. Urdaiazpikoa ontzeko lanak

- **Erref:** BER-283/025
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:29:03. **Bukatu:** 00:31:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Txerria hildakoan, urdaiazpikoa etxean egiten zuten. Gatzun-askan sartzen zen. Zortzi-hamar egunera buelta eman eta ea gatza ondo hartu zuen begiratu. Bi-hiru hilabetera handik atera, uretan beratu eta zintzilik jartzen zen, sikatu arte. Gero piper-hautsa ematen zitzaion, harrik ez egiteko. Harrak eginez gero, ebaki, denak ondo kendu, berriz piper-hautsa eman eta ondo zaindu behar. Batzuek gari artean sartzen zuten. Gaztak ere sartzen ziren gari-kutxan.

9. Txorizoak nola egin eta kontserbatu

- **Erref:** BER-283/027
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:31:24. **Bukatu:** 00:33:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Urdaiazpikoari harrak eginez gero, zatitu eta oliotan jartzen zen, ondo kontserbatzeko. Txorizoak ere oliotan ipintzen ziren, sikatu ostean. Txerriaren okela pusketekin egiten ziren txorizoak. Txahal-okela ere ekartzen zen kaletik, txorizo gehiago egitearren eta txorizoak hain koipetsuak ez izateko. Zer gehiago botatzen zieten.

10. Mendebalak txorizoak hondatu zituenekoa

- **Erref:** BER-283/029
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:35:31. **Bukatu:** 00:36:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Txorizoak egindakoan eskegi egiten zituzten, sikatzeko. Behin, Frantziako osaba-izebak bisitatzerako joan ziren "txerri-erregaloekin", odolosteak eta txorizoak zintzilik utzita. Mendebalak jo zuen eta txorizoak apurtzen hasi ziren. Beraiek etxeratzerako, etxeokok ganbarara jasota zeuzkaten txorizoak.

11. Garia kendutakoan, "galtzua"rekin zer egin

- **Erref:** BER-283/038
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:43:36. **Bukatu:** 00:44:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Garia kendutakoan, arbia ereiten zen. Lehenengo, lurra ondo goldatu behar arearekin, gariaren zutarrak kentzeko. Gariaren zutar eta hondarrak batzuetan erre egiten zituzten eta beste batzuetan azpigarritarako etxera jaso. "Galtzua" esaten zioten.

12. Garia "dornuarekin" garbitzen zuten

- **Erref:** BER-283/039
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:44:54. **Bukatu:** 00:45:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Garia jotakoan, hasieran "alkotzarekin" lagatzen zen. Ganbaran gordetzen zen eta geroago beste makina batekin ("dornuarekin") garbitu. Bi-hiru eguneko lana izaten zen eta gari-jotzea bezain txarra, hauts handia ateratzen zen eta.

13. Galburuak igitaiarekin apartatzen

- **Erref:** BER-283/041
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:46:02. **Bukatu:** 00:47:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gari-azaoak makinan sartzen zirenean, batzuetan galbururen bat geldi zitekeen askatu gabe, eta emakumeren bat egon ohi zen igitaiarekin haiek apartatzen. Lastoa ganaduarentzat izaten zen. Belarra nahiago izaten zuten, baina besterik ezean huraxe jaten zuten. Bestela, azpigarritarako ere erabiltzen zen.

14. Arbia ereiteko lanak; lurra lantzean erpilak nola apurtu

- **Erref:** BER-283/042
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:47:19. **Bukatu:** 00:50:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

Arbia ereiteko, lurra prestatu behar. Lehenengo burdinarea pasatzen zuten. Erpilak irteten zirenez, haiek apurtu egin behar hesiarekin edo harri-bolarekin. Hesia nolakoa izaten zen. Itulan aurretik zihoanak mazoarekin jotzen zituen erpil handienak. Gero, sahats xehe-xehea prestatzen zuten; lurrean zuloa egin, arbi haziak bota eta gainean sahatsa. Landarea erretzen zenean, zaindu egin behar izaten zen, zomorroek ez jateko. Mehaztu eta gero, berriz aitzurrarekin jorratu.

15. Gari tartean irteten ziren belar txarrak

- **Erref:** BER-283/043
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:50:58. **Bukatu:** 00:53:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserrria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Garia nola ereiten zuten. Gero "jorraixa"rekin, aitzur txikiarekin, jorratu, belar txarrak kentzeko. Burua egiten zitzaionean, beste belar txar batzuk ateratzen zitzaizkion gariari: oloa, zalkea, hirukoitza... Ilaretan joan eta batu egiten ziren. Oloaren inguruko azalpenak.</p>

16. Elurretan ere arbia atera behar ganaduarentzat

- **Erref:** BER-283/044
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:53:04. **Bukatu:** 00:54:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Natura » Meteorologia
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Arbia negu guztirako ganaduarentzako jana izaten zen. Izotzarekin txarra izaten zen, baina elurra zenean ere atera egin behar. Eskuak epeltzeko galdara batean ur beroa eraman behar edo, bestela, aurretik elur bolak botatzen ibiltzea zela ona dio Natik.

17. Artoa eta baba nola erein; artalorea eta artapunta ganaduarentzat

- **Erref:** BER-283/047
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:55:16. **Bukatu:** 00:58:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Arbia kentzen zenean, udaberrian, artoa ereiten zen. Neguan belar gutxi ateratzen zenez, lan gutxiago izaten zuen artoak. Lurra prestatu eta erein egiten zen. Pixka bat ernetzen zenean, baba sartu. Biak batera ereinez gero, babak mendean hartzen ei zuen artoa. Nolako lana izaten zuten: mehatzu, jorratu... Handitzen zenean, lehenengo artalorea batzen zen ganaduarentzat eta geroago "artapunta".</p>

18. Arto-zuritzearen inguruko kontuak

- **Erref:** BER-283/049
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:58:30. **Bukatu:** 01:00:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Arto-zuritzea eta garo-lana batera samar izaten ziren. Artoa zuritzeko astirik ez zenez egoten, ganbarara jasotzen zen lasto, buru eta guzti. Udazkenean, denbora txarra zenean, edo iluntzeetan, basotik etorri ostean, egiten zen arto-zuritzea. Amandrea gaztainak erretzen egoten zen. Berakatz-salda eta gaztainak jan eta ohera. Bazkaltzeko zer jaten zuten.

19. Artoa urkultzeko "teknika"

- **Erref:** BER-283/051
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 01:01:13. **Bukatu:** 01:03:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

Neguan, beste lanik ez zegoenean, artoa urkultzen zuten, sukaldara banastan ekarrita. Banastari burdina bat jartzen zioten zulo batetik bestera eta haren kontra igurtzita urkultzen zuten. Oskolaren laguntzaz ere egiten zuten batzuek.

20. Ganaduarentzat pagatxa, sekula-belarra eta alpapa

- **Erref:** BER-283/057
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:07:03. **Bukatu:** 01:08:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Erremolatxa ere izaten zuten. Lehen udan ganaduari etxean ematen zitzaion jaten. Belar ondua gastatzen zenean, sorotik mantendu behar: pagatxa, sekula-belarra, alpapa... Gurdiarekin etxera jaso behar izaten ziren.

21. Garotara urrun joan beharra

- **Erref:** BER-283/059
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:08:58. **Bukatu:** 01:11:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Urrun joan behar izaten ziren garotara, Loidi baso ingurura. Egunean bi bidaia egiteko, goiz jaiki behar eta, gainera, garoa ebaki, lehortu eta ondo batuta eduki behar. Gurdia eta lera erabiltzen zituzten. Goizean bi lagun joaten ziren garoa batzera. Eguerdian beste bat bazkaria gurdian hartuta. Iluntzean, etxeratutakoan, sardearekin sakape batera husten zuten. Eta gero hurrengo egunerako berriz gurdia prestatu. Sugatzak ere egiten zituzten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com